

9. FITXA ARABA – Udalerrri barruko garraioa finantzatzeko dirulaguntzak, 20.000 biztanletik beherako Arabako Lurralde Historikoko udalerriei zuzendutakoak

Nori zuzendua: Arabako Lurralde Historikoko 20.000 biztanletik beherako udalerrriak, udalerrri barruko garraio-zerbitzua ematen dutenak.

Sarbide-esteka: [20.000 biztanletik beherako udalerrientzako udalerrri barruko garraiorako laguntzak - egoitza \(araba.eus\)](https://araba.eus)

Erreferentziazko araudia: [82/2024 Foru Agindua, martxoaren 4koa. Lurralde Oreka eta Lurralde Antolamendu Sailaren dirulaguntzak norgehiagoka-erregimenean emateko deialdia onartzea. Dirulaguntza horiek Arabako Lurralde Historikoko 20.000 biztanletik beherako udalerriei zuzendutako udalerrri barruko garraioa finantzatzeko dira.](#)

Eremuak: Udalerrriko garraioa

Zenbatekoa: 50.000 €

Eskabideak aurkezteko epea: 2024/04/22

Laburpena

Laguntza-programa honen helburua 20.000 biztanletik beherako Arabako udalerriek erabat beren lurralde eremu-barruan sustatutako garraio publikoa hobetzen laguntzea da.

Diruz lagundu daitezkeen jarduketak

Diruz lagundu ahal izango dira 20.000 biztanletik beherako Arabako udalerriek **beren lurraldeko hainbat guneren artean** sustatzen eta kudeatzen dituzten **garraio publikoko** ekintzak, baldin eta Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legearen 17.18) artikuluan esleitutako eskumen propioa badute.

Horrela, udalerrri horiek **udalerrri barruko garraio-zerbitzua** emateko egiten dituzten gastuek osatu ahal izango dute diruz lagun daitezkeen aurrekontua, dela zuzenean, dela zeharka, administrazio-kontratu edo emakida baten bidez.

Zerbitzuaren hornidura udalarena izan beharko da, eta produkzio publikoa edo pribatua izan daiteke.

Hornidura publikoa honela definitzen da: udalerrriak erabat edo gehiengoz arautzea eta finantzatzea.

Gastuetarako aldi hautagarria

Dirulaguntzaren xede den jarduketaren iraupena 2024ko ekitaldian zehar hasiko da, eta 2024ko abenduaren 31n amaitu beharko da.

Laguntzen zenbatekoa

Garraio-linea bakoitzeko gehienez ere 6.000 €-ko dirulaguntza emango da urtean, eta udal bakoitzeko gehieneko zenbatekoa urtean 10.000 €-koa izango da.